JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**SILVIA PENA LORENTEK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2026ko martxoaren 9an egindako ezohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

"Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan (Ezkaroze), 2026ko martxoaren 9ko 18:45ean, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko osoko bilkura egin du, Gustavo Goiena Agirre Batzordeburu dela.

Batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA:** Juan Angel Contin Carlosena, Iñaki de Carlos Intxusta eta Koldo Vicente Eseberri.

**ERRARTEA:** Maitane Eslava Pena.

**ATABEA:** Gustavo Goiena Agirre.

Unai Yarza Salaberriak, Milagros Zubiri Sanzek eta Jose Angel Molinero Torreak ezin etorria adierazi dute.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Otsailaren 11ko Osoko Bilkuraren akta ikusirik, deialdiarekin batera banatu dena, aho batez onetsi da.

**2. EGONKORTZE PROZESUAREN JARRAIPENA. LARREZAINA.**

2024ko maiatzaren 30eko 111 zenbakiko NAOn (Nafarroako Aldizkari Ofiziala) argitaratu zen Batzorde Nagusiko lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari zegozkionak, 20/2021 Legean xedatutakoarekin bat. Besteak beste, larrezain lanposturako deialdia egin zen.

**SILVIA PENA LORENTE, SECRETARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

Que de la sesión **EXTRAORDINARIA** celebrada con fecha 9 de marzo de 2026, se ha extendido el acta que se transcribe a continuación:

"En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las 18:45 horas del **día 9 de marzo del 2026**, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión extraordinaria bajo la Presidencia de D. Gustavo Goiena Agirre y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA:** D. Juan Ángel Contin Carlosena, D. Iñaki de Carlos Inchusta y D. Koldo Vicente Eseberri.

**POR ERRARTEA:** Dña. Maitane Eslava Pena

**POR ATABEA:** D. Gustavo Goiena Agirre.

Excusan su asistencia D. Unai Yarza Salaberria, Dña. Milagros Zubiri Sanz y D. Jose Ángel Molinero Torrea.

Abierta la sesión por el Sr. presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, ACTA SESIÓN ANTERIOR**

Vista el acta del 11 de febrero adjuntada a la convocatoria, se aprueba por unanimidad.

**2.- CONTINUIDAD PROCESO DE ESTABILIZACIÓN. GUARDA DE PASTOS**

En el BON nº 111, de 30 de mayo de 2024, se aprobó la convocatoria para la provisión, mediante concurso de méritos, de vacantes de puestos de la Junta correspondientes al proceso extraordinario de estabilización y consolidación de empleo temporal, según lo dispuestos en la Ley 20/2021. Entre otros, se convocó el puesto de trabajo de **Guarda de Pastos.**

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Lanpostu hutsak hautatzeko izapidea amaitu ondoren, 2024ko uztailaren 26an, epaimahaiak espediente osoa onetsi eta, larrezain lanpostua betetzeko, Gabriel Ichaso Gazpio izendatzeko proposamena egin zuen.

2024ko uztailaren 26an bertan, Ichasok, Batzorde Nagusiari bidalitako idazki baten bidez, adierazi zuen ezin zuela aurkeztu oinarrien 10. puntuan eskatutako dokumentazioa, aldi baterako ezintasun-egoeran zegoelako (ezinbesteko arrazoia), eta prozedura eteteko eskatu zuen.

2026ko otsailaren 24an, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena jaso zen. 2026-02-19ko ebazpen horren bidez, onetsi zen Gabriel Ichaso Gazpiok ezin duela lanpostu horretan jardun. Hortaz, Batzorde Nagusiak AHO BATEZ erabaki zuen larrezain lanpostua egonkortzeko 2024an bertan behera utzitako prozesuarekin jarraitzea.

Behin betiko kalifikazioak kontuan hartuta, epaimahaiak honako puntuazio hauek eman zizkien izangaiei:

Una vez finalizado el trámite de elección de vacantes, el 26 de julio de 2024 el tribunal elevó junto con el expediente completo, la propuesta de nombramiento en favor de D. Gabriel Ichaso Gazpio para la vacante de Guarda de Pastos.

Con fecha 26 de julio de 2024 el Sr. Ichaso manda escrito a la junta en la que expone que no puede presentar la documentación requerida en el punto 10 de las bases, debido a que está en situación de incapacidad temporal (causa de fuerza mayor) y solicita se suspenda el procedimiento.

Con fecha 24 de febrero de 2026 se recibe Resolución del Instituto Nacional de la Seguridad Social en la que se aprueba con fecha 19-02-2026 que Gabriel Ichaso Gazpio no puede desempeñar el mencionado puesto de trabajo. Por lo tanto, se ACUERDA POR UNANIMIDAD, seguir con el proceso de estabilización de Guarda de Pastos suspendido en 2024.

Teniendo en cuenta las calificaciones definitivas del proceso, el tribunal trasladó las siguientes puntuaciones de cada aspirante:

| | NOMBRE Y APELLIDOS | MÉRITOS PROFESIONALES (60 ptos) | INGLES/FRANCÉS (6 ptos.) | EUSKERA (7 ptos) | TITULACIÓN SUPERIOR (10 ptos.) | CURSOS (17 ptos.) | total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | GABRIEL ICHASO GAZPIO | 28,93 | 0 | 2,92 | 0 | 16 | 47,85 |
| 2 | HÉCTOR GARCÍA CLEMENTE | 2,58 | 0 | 1,4 | 10 | 17 | 30,98 |
| 3 | AITOR ARRARÁS POLAINA | 3,09 | 0 | 5,6 | 0 | 16 | 24,69 |
| 4 | JON RIDRUEJO FERNÁNDEZ | 0,00 | 0 | 7 | 0 | 17 | 24,00 |
| 5 | ANDONI AZCOITI GORRIA | 0,38 | 0 | 5,6 | 0 | 0 | 5,98 |

Izangaien zerrenda aztertu ondoren, eta Gabriel Ichaso larrezain lanposturako kontratatu ezin denez eta Hector Garcia Clementek lanpostuari berariaz uko egin dionez, **Aitor Arraras Polaina** da zerrendako hurrengoa.

Adierazi da hautatutako izangaiak baldintzak egiaztatzeko izapidea bete duela, bere garaian

Tras la revisión de la lista de aspirantes y ante la imposibilidad de formalizar la contratación de D. Gabriel Ichaso para el puesto de Guarda de Pastos, así como la renuncia expresa presentada por D. Héctor García Clemente, el siguiente en la lista es **D. Aitor Arrarás Polaina.**

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

aurkeztu baitzuen eskatutako titulazioa, behar bezala konpultsatuta; hori dena deialdiaren 9. oinarrian ezarritakoarekin bat.

Aurreko izapidea bete ondoren, lanpostu hutsa hautatzeko ekitaldia deitu da, horretarako hautatu beharreko lanpostu hutsa argitaratuz:

- Larrezain lanpostu bat. Maila: D. Lanaldia: osoa, urtean 6 hilabete. Mailako osagarria: % 12. Lanpostuaren osagarria: % 12,99. Euskara jakitea: merezimendua.

5 egun baliodunеko epea ireki da lanpostua hautatzeko. Horretarako, berariaz prestatutako inprimakia aurkeztu beharko da Batzorde Nagusiaren helbide elektronikoaren bidez, junta@valledesalazar.com, edo Batzorde Nagusiaren bulegoetan, 8:00etatik 15:00etara.

De conformidad con lo estipulado en la Base 9 de la convocatoria, se hace constar que la persona seleccionada ya ha dado cumplimiento al trámite de acreditación de requisitos, habiendo aportado en su momento la titulación requerida debidamente compulsada.

Una vez cumplimentado el trámite anterior, se convoca el acto de **elección de vacante**, mediante la publicación de la relación de la plaza vacante a elegir:

- 1 plaza de guarda de pastos. Nivel: D. Jornada: completa, 6 meses. Complemento de nivel: 12%. Complemento de puesto: 12,99%. Conocimiento de euskera, valoración como mérito.

Se abre el plazo de 5 días hábiles para la elección, a través del correo electrónico de la junta: junta@valledesalazar.com o de manera presencial en las oficinas de la Junta en el horario de 8:00 a 15:00 mediante el impreso habilitado al efecto, de las siguientes vacantes:

| Lanpostua / puesto de trabajo | Deitutako izangaia / Aspirante convocada | Puntuazioa / Puntuación | Betebeharrak egiaztatuta / Acreditados requisitos |
|---|---|---|---|
| LARREZAINA GUARDA DE PASTOS | AITOR ARRARAS POLAINA | 24,69 | Bai/Sí |

Epe horren barruan hautaketarik egiten ez bada, izangaiak lehiaketaren xede diren plazak betetzeko eskubide guztiak galduko ditu, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Lanpostu hutsak hautatzeko izapidea amaitu ondoren, epaimahaiak espediente osoa onetsi eta izangaia izendatzeko edo kontratatzeko proposamena eginen du.

Quien, dentro del plazo indicado, y salvo caso de fuerza mayor suficientemente justificado, no formule elección, perderá todos sus derechos a desempeñar las plazas objeto del concurso.

Una vez finalizado el trámite de elección de vacantes, el tribunal elevará junto con el expediente completo, la propuesta de nombramiento o de contratación en favor de la persona aspirante.

**3. IRATIKO BASOZAIN LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ EGITEKO DEIALDIA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Azaldu denez, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak 2021ean egindako lehiaketa-oposizioaren ondorioz eratutako kontratazio-zerrendaren bost urteko indarraldia aurten amaituko da, hortaz, indarrik gabe geratuko da.

Zerbitzu horri jarraipena eman behar zaionez, deialdi berri bat egiteko proposamena aztertu da, Iratiko basozainei laguntzeko lanpostuak aldi baterako, lehiaketa-oposizio bidez eta lan-araubidean, betetzeko izangaien zerrenda bat egiteko. Oinarrien zirriborroa akta honi erantsi zaio.

Gaia eztabaidatu ondoren, AHO BATEZ erabaki da deialdia arautuko duten oinarriak onestea.

Oinarriak Lansarera (Nafarroako enplegu zerbitzura) bidaliko dira, eta Batzordearen webgunean eta eBandon argitaratuko dira.

**4. 2026KO KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONESTEA, EGOKIA BADA**

AHO BATEZ erabaki da 2026ko kultur eta kirol jardueretarako dirulaguntza deialdiaren oinarri arautzaileak onestea.

Eskabideak eta agiriak Batzordearen bulegoetan aurkeztu beharko dira, maiatzaren 16ko 12:00ak baino lehen.

Oinarriak Batzordearen webgunean, iragarki-oholean eta eBandon (eAgora) argitaratuko dira.

**3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, CONVOCATORIA PARA LA ELABORACIÓN, MEDIANTE CONCURSO-OPOSICIÓN, DE UNA LISTA DE ASPIRANTES PARA LA PROVISIÓN TEMPORAL DEL PUESTO DE GUARDERÍO TURÍSTICO**

Se expone que la lista de contratación para el apoyo al **Guardería Turístico de Irati**, derivada de la convocatoria aprobada por esta Junta en el año 2021 mediante el sistema de **concurso-oposición**, cumplirá su periodo de vigencia de cinco años durante el presente ejercicio 2026, quedando consecuentemente sin efecto.

Dada la necesidad de dar continuidad a dicho servicio, se somete a examen la propuesta de una **nueva Convocatoria** para la elaboración, también mediante concurso-oposición, de una relación de aspirantes destinada a la **provisión temporal** de puestos de apoyo al Guardería Turístico en régimen laboral. Se adjunta el borrador de las bases a la presente acta.

Tras la deliberación de los miembros de la Junta, se acuerda por unanimidad, aprobar las bases reguladoras que regirán la Convocatoria para la elaboración, mediante concurso-oposición, de una lista de aspirantes para la provisión temporal del puesto de Guardería turístico, en régimen laboral.

Las bases se enviarán al Servicio Navarro de Empleo – NL, se publicará en la página web de la Junta y en el eBando, para su difusión.

**4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, BASES REGULADORAS CONVOCATORIA AYUDAS ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS 2026**

Se ACUERDA POR UNANIMIDAD la aprobación de las Bases Reguladoras de la subvención para actividades culturales-deportivas para el ejercicio 2026.

Las solicitudes junto con la documentación requerida deberán presentarse en las oficinas de la Junta, hasta las 12:00 horas del día 16 de mayo.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**5. 2026KO AURREKONTUA ETA AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK ONESTEA. IRATI BASOA ETA MUSIKA ESKOLA**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 192. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari aurkezten zaion aurrekontu proiektuak Aurrekontu Orokor Bakarra osatzen du. Aurrekontu hori Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren eta haren mendeko erakunde autonomo guztien (Musika Eskola) aurrekontuek eta kapital sozial osoa toki-erakundearena duten merkataritza-sozietateen gastuen eta diru-sarreren aurreikuspen-egoerek osatu beharko dute, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 194. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 17. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, aurrekontuaren espedienteak toki erakundearen errealitate ekonomikoa guztiz ezagutzeko behar den dokumentazio osagarri guztia jaso beharko du.

Musika Eskolaren aurrekontua ikusirik, aho batez onetsi da. Gastuak eta diru-sarrerak 94.800 eurokoak dira.

Irati Basoaren aurrekontua ikusirik, aho batez onetsi da.

Batzorde Nagusiaren 2026ko aurrekontua urtarrilaren 12an eta martxoaren 2an egindako bileretan adostu zen.

Aho batez onetsi dira 2026ko aurrekontua eta hori betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoarekin bat, hasierako

Las bases se publicarán en la página web de la junta, en el tablón y en el eBando (eAgora).

**5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, PRESUPUESTOS 2026 Y SUS BASES DE EJECUCIÓN; IRATI BASOA S.L. Y ESCUELA DE MÚSICA VALLE DE SALAZAR**

Conforme a lo dispuesto en el artículo 192 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, el proyecto de Presupuesto que se somete a la consideración del Pleno constituye el Presupuesto General Único, el cual deberá estar integrado por el Presupuesto de la Junta General del Valle de Salazar y del de todos los organismos autónomos dependientes del mismo (Escuela de Música) y los estados de previsión de gastos e ingresos de las sociedades mercantiles cuyo capital social pertenezca íntegramente a la Entidad Local, según lo establecido en el artículo 194 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de las Haciendas Locales de Navarra.

De conformidad a lo establecido en el artículo 17 y siguientes del Decreto Foral 270/1998, de 21 de septiembre, por el que se desarrolla la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra en materia de presupuestos y gasto público, el expediente del Presupuesto deberá contener toda la documentación complementaria precisa para el total conocimiento de la realidad económica de la entidad local.

Visto el presupuesto de la Escuela de Música para el ejercicio del 2026, siendo los ingresos y gastos de 94.800,00€, se APRUEBA POR UNANIMIDAD.

Visto el presupuesto de la empresa pública Irati Basoa, se APRUEBA POR UNANIMIDAD.

El Presupuesto de la Junta para el ejercicio 2026 ha sido consensuado en las reuniones realizadas el pasado 12 de enero y 2 de marzo.

Se APRUEBA POR UNANIMIDAD el Presupuesto General Único de la Junta para el 2026 y sus bases de ejecución. Este expediente, de

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

onespena jendaurrean jarriko da idazkaritzan, hamabost egun balioduneko epean, NAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izan ditzaten.

Hona hemen Batzorde Nagusiaren aurrekontua:

GASTUAK:

1. kapitulua. Langileak: 448.054,52 euro.
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak: 234.121,29 euro.
3. kapitulua. Finantza-gastuak: 0
4. kapitulua. Transferentzia arruntak: 135.747,00 euro.
5. kapitulua. Kontingentzien funtsa: 0 euro.
6. kapitulua. Inbertsio errealak: 417.158,07 euro.
7. kapitulua. Kapital-transferentziak: 20.000,00 euro.
8. kapitulua. Finantza-aktiboak: 0 euro.
9. kapitulua. Finantza-pasiboak: 0 euro.

GASTUAK, GUZTIRA: 1.295.870,00 euro.

DIRU-SARRERAK:

1. kapitulua. Zuzeneko zergak: 0 euro.
2. kapitulua. Zeharkako zergak: 0 euro.
3. kapitulua. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 127.787,00 euro.
4. kapitulua. Transferentzia arruntak: 567.342,00 euro.
5. kapitulua. Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 379.627,48 euro.
6. kapitulua. Inbertsioak besterentzea: 0 euro.
7. kapitulua. Kapital-transferentziak eta kapitaleko bestelako diru-sarrerak: 116.312,40 euro.
8. kapitulua. Finantza-aktiboak: 0 euro.
9. kapitulua. Finantza-pasiboak: 0 euro.

DIRU-SARRERAK, GUZTIRA: 1.295.870,00 euro.

conformidad con lo dispuesto en el artículo 271 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinarlo y formular las reclamaciones, reparos u observaciones que estimen oportunas.

El presupuesto de la Junta queda así:

Gastos:

Capítulo 1.–Gastos de personal: 448.054,52 euros.
Capítulo 2.–Gastos en bienes corrientes y servicios: 234.121,29 euros.
Capítulo 3.–Gastos financieros: 0 euros.
Capítulo 4.–Transferencias corrientes: 135.747,00 euros.
Capítulo 5.–Fondo de contingencias: 0 euros.
Capítulo 6.–Inversiones reales: 417.158,07 euros.
Capítulo 7. –Transferencias de capital: 20.000 euros.
Capítulo 8.–Activos financieros: 0 euros.
Capítulo 9.–Pasivos financieros: 0 euros.
Total gastos: 1.255.080,88 euros.

Ingresos:

Capítulo 1.–Impuestos directos: 0 euros.
Capítulo 2.–Impuestos indirectos: 0 euros.
Capítulo 3.–Tasas, precios públicos y otros ingresos: 127.787,00 euros.
Capítulo 4.–Transferencias corrientes: 631.354,00 euros.
Capítulo 5.–Ingresos patrimoniales y aprovechamientos comunales: 379.627,48 euros.
Capítulo 6.–Enajenación de inversiones: 0 euros.
Capítulo 7.–Transferencias de capital y otros ingresos de capital: 116.312,40 euros.
Capítulo 8.–Activos financieros: 0 euros.
Capítulo 9.–Pasivos financieros: 0 euros.
Total ingresos: 1.255.080,88euros.

**6. IKER VICENTE AIZKOLARIARI PAGOAK EMATEKO ESKAERA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Batzordea Marivi Saraleguirekin bildu zen Iker Vicente aizkolariari pagoak emateko akordioa berritzeko, kirolerako laguntza gisa. Akordioak 5 urteko iraunaldia izanen du, eta pago kopuru bera emanen zaio galtzetako ezker hankan Iratiren publizitatea jartzearen truke.

250 $m^3$ pago izanen dira bost urterako, 40-50 $m^3$ inguru urtean, eta pagoek 40, 55 eta 60 cm-ko diametroa izanen dute. Nafarroako Gobernuaren eta Batzordearen basozainek eta eskatzaileak markatuko dituzte. Horiek ateratzea eta garraiatzea haren kontura izanen da.

Batzordeak AHO BATEZ ERABAKI DU 2015eko irailaren 24ko eta 2020ko azaroaren 26ko hitzarmena berritzea: 40-50 $m^3$ pago urtean, baldintza berberekin.

**7. BATZORDEKIDE KARGU BAT BETETZEA**

2026ko urtarrilaren 19an Raul Carretero Udik batzordekide karguari uko egiteko erabaki ezeztaezina aurkeztu zuen.

Batzordearen zortzigarren ordenantzarekin arabera, batzordekideen eginkizunen iraupenari buruzkoa, *“batzordekideen kargualdia lau urtekoa izanen da. Horietako batek (….) uko egiten badio, kiñoi berean boto gehien lortu duen hautagaiari esleituko zaio kargua, eta horrela jarraituko da ondoz ondo, kiñoi berean hautagai guztiak agortu arte. Hautagai gehiagorik ez badago, kiñoi berean hautatzeko modukoak diren bizilagunen artean hautatuko da beste batzordekide bat.”*

Zaraitzuko Batzorde Nagusiak jakinarazi du zazpi eguneko epea irekiko duela, martxoaren 17ra arte (egun hori barne), Errarteako kiñoiko batzordekide kargu hutsa betetzeko, interesa duten biztanleek hautagaitza aurkez dezaten.

**6.- APROBACIÓN SOLICITUD CONCESIÓN DE HAYAS PARA IKER VICENTE, AIZKOLARI LOCAL**

La Junta se reunió con Mariví Saralegui para la renovación del acuerdo de cesión de hayas para el aizkolari Iker Vicente como ayuda a su deporte para otro periodo de 5 años con la misma cantidad de hayas y a cambio de publicidad de Irati en el pantalón de su pierna izquierda.

Será una cantidad de 250 m3 para cinco años, unos 40-50 m3 por año y el tipo de madera será de 40, 55 y hasta 60 cm de diámetro. La madera se marcará entre el Guarderío de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra, el personal forestal de la Junta y el peticionario. Su apeo y trasporte correría a cargo de este último.

Se ACUERDA POR UNANIMIDAD la renovación del acuerdo de concesión de fecha 24 de septiembre 2015; y 26 de noviembre de 2020; unos 40-50 m3 de hayas para otros cinco años en las mismas condiciones que el anterior.

**7.- VACANTE VOCAL DE LA JUNTA**

D. Raul Carretero Udi presentó su decisión irrevocable de dimisión como vocal de la Junta el 19 de enero de 2026.

De conformidad con la ordenanza octava de las ordenanzas de la Junta, respecto a la duración de las funciones de los junteros y junteras, el mandato de estos será de cuatro años. En el caso de (…) renuncia de uno/a de ellas, su cargo se atribuirá al candidato/a que más votos haya conseguido del mismo Quiñón, así sucesivamente hasta terminar con todos los candidatos/as del mismo Quiñón. En caso de no existir más candidatos/as se elegirá a otro juntero/a entre los vecinos/as del mismo Quiñón con la condición de elegibles del Valle.

La Junta comunica la apertura de un plazo de **siete días**, hasta el próximo 17 de marzo inclusive, para que la población del **Quiñón de Errartea** que

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Behar den dokumentazioa aurkezteko, Batzorde Nagusiaren bulegora jo beharko da, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:20ra, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoak erabili; kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu izanaren egiaztagiria bidali beharko da junta@valledesalazar.com helbide elektronikora, hautagaitzak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Batzorde Nagusiaren Bosgarren Ordenantzaren arabera, baldintza hauek bete behar dira hautagai izateko:

a) Adinez nagusia izatea
b) Erroldatuta egotea
d) Batzordearekin zorrik ez izatea
e) Batzordeko jarduneko langilea ez izatea

## 8. MUGAZ GAINDIKO PROIEKTUAK

Ikusirik 141E/2025 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara kontseilariak emana, 2026ko ekitaldian mugaz gaindiko lankidetza jarduerak bultzatzeko dirulaguntzaren deialdia onesten duena,

Batzordeak AHO BATEZ ERABAKI DU 9.342,60 euroko dirulaguntza eskaera egitea.

Proiektuaren helburua da euskara, harremanak eta folklore-ohiturak sustatzea eta indartzea, bai eta Nafarroako eta Iparraldeko ekialdeko ibarretako antzinako lanbideak ere. Horrela, Zuberoako Basaburuaren eta Nafarroako Erronkaribar eta Zaraitzuren arteko harremanak sendotu nahi dira. Horri begira, hainbat kultur, kirol eta aisialdiko jarduera planteatu dira.

tenga interés en ocupar la vacante de vocal de esta Junta presente su candidatura.

La documentación necesaria podrá entregarse en las oficinas de la Junta, en el horario de atención de lunes a viernes, de 8:00 a 15:20 horas o por los medios contemplados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas en cuyo caso deberán enviar justificante de haber presentado la documentación a la siguiente dirección de correo electrónico: junta@valledesalazar.com , antes del plazo señalado para la finalización de la presentación de candidaturas.

De acuerdo con la Ordenanza Quinta de la Junta, para ser elegible deberán reunirse las siguientes condiciones:

a) Ser mayor de edad.
b) Estar empadronado/a.
d) No tener deuda liquida exigible con la Junta.
e) No ser trabajador o trabajadora en activo de la Junta

## 8.- PROYECTOS TRANSFORNTERIZOS

Vista la *ORDEN FORAL 141E/2025, de 23 de diciembre, de la consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera por la que se aprueba la convocatoria de la subvención para el impulso de actividades de cooperación transfronteriza en el ejercicio 2026,* la Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD enviar solicitud de subvención por un importe de 9.342,60€.

El proyecto consiste en potenciar y fortalecer tanto el euskera, las relaciones personales y las costumbres folklóricas, y sobre los oficios de antaño que se vienen realizando en los valles orientales de Nafarroa e Iparralde. De esta manera se quiere reforzar las relaciones establecidas entre los valles de Basaburua en Zuberoa y los valles limítrofes de Roncal y Salazar en Nafarroa. Para todo ello, se plantean

## 9. IZANDAKO BILERAK

- Otsailaren 12an: Pirinioko Mahaia
- Otsailaren 18an: Biosfera Erreserbaren aurkezpena Nafarroako Ingurumen Kontseiluan.
- Otsailaren 24an: batetik, Musika Eskolako ordezkari sindikalarekin eta LABeko ordezkariarekin; eta bestetik, Resina proiektuaren arduradunarekin.
- Otsailaren 25ean: Pirinioko Mahaia.
- Otsailaren 26an: Urruxkide egunaren antolaketa.
- Martxoaren 2an: Zaraitzuko zahar-etxeko arduradunekin.
- Martxoaren 3an: batetik, ibarreko udaletako ordezkariekin, Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren gaia aztertzeko; eta bestetik, abeltzaintzari buruzko bilera Ana Marinas eta Mikel Reparazekin.
- Martxoaren 6an: Batzar irekia Zaraitzuko Etxean.
- Martxoaren 9an: batetik, Iratiko basozainekin, kanpainari hasiera-eguna jartzeko (martxoaren 27an izanen da); eta, bestetik, GR Zaraitzubideko hainbat eragilerekin.

## 10. JASOTAKO IDAZKIAK

- NAFARROAKO UDALEN ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA. EGUESIBARKO UDALA:

INAIrekin eta udaletako berdintasun teknikariekin adostutako protokoloari jarraituz, Eguesibarko Udalak onartutako adierazpen instituzionala jaso zen, otsailaren 20an Sarrigurenen gertatutako bi bizilagunen hilketari buruzkoa, egoki iritziz gero harekin bat egiteko.

Batzordeak bat egin du adierazpenarekin.

- EZKAROZEKO UDALA:

Alkatearen ebazpena, Zaraitzuko Etxeko bigarren solairuko etxebizitzari lehen erabilerako lizentzia ematen diona: Arrotxapea kalea 16; 2. Poligonoa, 44. Partzela (Ezkaroze). Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zergaren behin

diferentes actividades culturales, deportivas y de ocio.

## 9.- REUNIONES MANTENIDAS

-12 de febrero: Mesa del Pirineo
-18 de febrero: presentación de la Reserva de la Biosfera en el Consejo Navarro de Medio Ambiente.
-24 de febrero: por un lado, con el delegado sindical de la Escuela de Música y el representante de LAB, y por otro lado con la responsable del proyecto Resina.
-25 de febrero: con la Mesa del Pirineo.
-26 de febrero: organización del Urruxkide Eguna.
-2 de marzo: con los responsables de la residencia Valle de Salazar.
-3 de marzo: por un lado, con los representantes de los ayuntamientos del Valle para tratar el tema del Pacto de las Alcaldías por el Clima y la Energía, y por otro lado, reunión de ganadería con Ana Marinas y Mikel Reparaz.
-6 de marzo: Reunión Pública en la Junta.
-9 de marzo: por un lado, con el equipo del Guarderío para poner fecha de inicio a esta campaña que será el 27 de marzo, y por otro lado, con diferentes agentes de la GR Zaraitzubide.

## 10.- ESCRITOS RECIBIDOS

-FEDERACIÓN NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS - AYUNTAMIENTO VALLE DE EGÜES:
*Siguiendo el protocolo acordado con el INAI y las técnicas municipales de Igualdad, se recibe Declaración institucional ante el homicidio y agresión de dos vecinas de Sarriguren ocurridos el 20 de febrero en Sarriguren aprobada por el Ayuntamiento del Valle de Egüés, con el objeto de que, si lo consideran, se adhieran a la misma*.
La Junta se adhiere a la mencionada Declaración.

-AYUNTAMIENTO DE EZCÁROZ:
Resolución de alcaldía en la que se concede **licencia de primera utilización a la vivienda** de la segunda planta del inmueble de la C/Rochapea, 16 en la

betiko likidazioa 3.738,57 eurokoa da, eta orain 1.067,96 euro ordaindu behar dira.

Batzorde Nagusia jakinaren gainean geratu da.

- LANDA GARAPENEKO ETA INGURUMENEKO DEPARTAMENTUA:

Erreketak egiteko erantzukizunpeko adierazpena (Ekainaren 16ko 222/2016 Foru Agindua, 237/2017 2025-2026-244 Foru Aginduetan aldatua). Ondoko eremuetan erreketak egiteko baimena eman du: 13. Poligonoa, 3. Partzela (Goñiburu); eta 14. Poligonoa, 3. Partzela (Tapla). Kanpainaren amaiera apirilaren 30ean izanen da.

- FRANCISCO SARRIES MARTINEZ:

Etxerako egur-sorta bat markatzea eskatu du, hostoa atera baino lehen ateratzeko, ahal dela Pikatua eremuan. Batzordeak AHO BATEZ ERABAKI DU eskaera onestea, dagokion prozedurari jarraituz. Jakinarazi da aurten etxerako egur-sortaren prezioa 60 euro direla.

- CARLOS MAZÓN DEL CAMPO – BASAJAUN2026

Otsagabiko Udalaren jakinarazpena jaso da. Horren bidez, Carlos Mazón del Campo Basajaun2026 lasterketaren antolatzailearen idazkia bidali du (Transibérica Randonneurs Club Ciclista). Eskatu du txosten bidez uztailaren 28an egin nahi duten lasterketarako baimena ematea.

Batzorde Nagusiak AHO BATEZ ERABAKI DU baimena ematea, betiere indarrean dagoen araudia bete eta behar diren baimenak lortzen baditu (Joko eta Ikuskizun Publikoen Atala, Ingurumeneko Departamentua, etab.).

- SUSANA IRISARRI PRIMICIA – NUP

*"Nafarroa Zientziaz izeneko programa bat garatzen ari gara. Horren bidez, kultur jarduerak eta dibulgazio zientifikokoak egiten ari gara foru*

parcela 44 del polígono 2 de Ezcároz, solicitada por la Junta. La liquidación definitiva del ICIO corresponde a 3.738,57€ teniendo que ingresar 1.067,96€.

La junta se da por enterada.

-DEPARTAMENTO DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE:

Declaración responsable para ejecutar quemas de acuerdo con la O.F. 222/2016 de 16 de junio y modificados posteriores en la O.F. 237/2017 2025-2026-244 en la que se autoriza las quemas en: polígono 13 parcela 3 (Goñiburu) y polígono 14 parcela 3 (Tapla), siendo fecha fin de la campaña el 30 de abril.

- FRANCISCO SARRIÉS MARTINEZ:

Solicita la marcación de un lote de leña de hogar en parada de savia para su apeo antes de que saquen la hoja, preferentemente en la zona de Pikatua.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD autorizar la solicitud siguiendo el procedimiento pertinente. Se informa que para este año el lote de leña de hogares está en 60,00 euros.

-CARLOS MAZÓN DEL CAMPO – BASAJAUN2026

Se recibe notificación por parte del Ayuntamiento de Otsagabia en la que se solicita por parte de Carlos Mazón del Campo, organizador de Basajaun 2026 (Transibérica Randonneurs Club Ciclista), informe de la mencionada prueba que se va a realizar el día 28/07/2026.

La Junta acuerda por unanimidad conceder la autorización para lo solicitado, siempre y cuando se cumpla con la normativa vigente y autorizaciones relativas pertinentes (Sección de Juego y Espectáculos Públicos, Dpto. de Medio ambiente, etc.).

-SUSANA IRISARRI PRIMICIA – UPNA

*Estamos desarrollando un programa denominado Navarra con Ciencia | Nafarroa Zientziaz, que consiste en realizar actividades de cultura y*

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

*komunitate osoan, ez bakarrik Iruñean edo Tuteran.*

*Gure ikerketa-taldeetako batek `Musika, Lurraldea eta Tradizio Eraldatua´ liburua argitaratu berri du. Liburuak musika tradizionala aztertzen du, Nafarroako euskarazko eta gaztelaniazko abestiak ardatz hartuta. Lan hori `En-Kantu. Música y territorio/Musika eta lurraldea´ diskoaren grabazioarekin loturik dago, NUPek 2021ean ekoitzia. Proposatzen dugu maiatzaren 23an dibulgazio-kontzertu bat egitea."*

Batzorde Nagusiak kontzertua egiteko baimena eman du.

*divulgación científica en lugares de la comunidad foral, no tanto en Pamplona o Tudela.*

*Uno de nuestros equipos de investigación acaba de publicar un libro sobre Música y Territorio y Tradición Transformada, que aborda un estudio de la música tradicional que toma como referencia canciones de Navarra, en euskera y castellano. El trabajo se vincula al proyecto de grabación en disco vinilo "En-Kantu. Música y territorio / Musika eta lurraldea", producido por la UPNA en 2021.*

*Se propone un concierto divulgativo en Salazar el 23 de mayo.*

La Junta autoriza realizar el mencionado concierto el 23 de mayo.

## 11. DIRUAREN ERABILERA

Faktura hauek onetsi dira:

## 11.- DISPOSICIÓN DE FONDOS

Seguidamente son aprobadas las facturas que se detallan a continuación

| | |
|---|---|
| FUNDACIÓN DINDAIA, taller en Urruxkide eguna | 280,00 |
| CONATEL, teléfono y wifi vía satélite caseta información diciembre | 66,55 |
| SOM ENERGIA, luz dependencias Casa del Valle diciembre | 375,70 |
| JOSU JIMENEZ MAIA, dinamización Irakurle Taldea. enero. Serv. Euskera | 191,50 |
| ITV REVISIONES NAVARRAS, revisión Toyota 6692GCF | 60,65 |
| MASBYTES, renovación anual dominio web | 25,62 |
| CASLI, material para máquina pisanieves | 92,88 |
| IBERDROLA, luz báscula 17/11 al 15/12 | 5,37 |
| GESTORÍA FLANDES, gestoría laboral 1er trimestre 2026 | 530,00 |
| CONATEL, teléfono y wifi vía satélite caseta información enero | 68,53 |
| MONSTRUOS M.A. hinchable korrika eguna, Serv. Euskera | 363,00 |
| SISNET, cuota teléfonos junta y trabajadores y fibra enero | 101,07 |
| EST. SERV. IRATI, gasóleos vehículos Junta | 102,44 |
| XABIER FLAMARIQUE CATALÀ, ipuinaren ordua enero, Serv. Euskera | 212,00 |
| CEDERNA GARALUR ELKARTEA, primera cuota 2026 | 9.356,12 |
| IBERDROLA, luz segunda planta Casa del Valle 15/12 al 16/01 | 35,03 |
| KATUBI, trabajos promoción euskera, Serv. Euskera | 72,79 |
| CASLI, diverso material máquina pisanieves | 293,33 |
| EUREKA PAPEL, diverso material oficina y archivo | 153,92 |
| LA CRAFETERA, taller mosaicos, Serv. Euskera | 318,00 |
| SOM ENERGIA, luz dependencias Casa del Valle enero | 429,48 |

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

| | |
|---|---|
| HEDA, edición revista Ze Berri? Nº 176, Serv. Euskera | 165,34 |
| INFOIRATI, cambio ordenadores oficina | 2.130,44 |
| TALLERES AREKI, cambio cerradura bajera | 157,40 |
| ONTINET, renovación anual antivirus oficinas | 83,43 |
| SCHINDLER, servicio mantenimiento anual ascensor Casas de Irati | 482,27 |
| ANTÓN MOBILIARIO, muebles coliving | 12.105,71 |
| FUNDACIÓN DINDAIA, Sormen tailerra, actividad Serv. Euskera | 171,00 |
| ASOC. CONSUMIDORES IRACHE, cuota socios valle enero | 263,42 |
| NAFARROA OINEZ, aportación | 300,00 |
| XABI CACAO TASTING, txokolate dastaketa, actividad Serv. Euskera | 508,79 |
| AYTO EZCÁROZ, liquidación definitiva ICIO | 1.067,96 |
| AYTO EZCÁROZ, tasa otorgamiento licencia urbanística | 104,40 |
| DISCOVER BRICKS, taller de legos, Serv. Euskera | 280,00 |
| XABIER FLAMARIQUE CATALÀ, ipuinaren ordua febrero, Serv. Euskera | 212,00 |
| LUIS MIGUEL NAVARRO ZAPATERO, memoria técnica para transición energética | 625,40 |
| EUSKARAZ KOOP. E, compra km de Korrika | 847,00 |
| PAPAELERÍA SANCHEZ, cajas de archivo expedientes | 114,35 |
| SUSTRAI COLINA FANDO, bertso bazkaria Jaurrieta, Serv. Euskera | 300,00 |
| CONATEL, teléfono y wifi vía satélite caseta información febrero | 68,53 |
| INFORATI, pantalla oficina | 115,00 |
| ASOC. CONSUMIDORES IRACHE, cuota socios valle febrero | 263,42 |
| IBERDROLA, luz báscula 15/12 al 19/01 | 5,37 |
| SISNET, cuota teléfonos junta y trabajadores y fibra febrero | 101,07 |
| IBERDROLA, luz segunda planta Casa del Valle 16/01 al 17/02 | 40,70 |

**12. GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:45ean Batzordeburuak bilkura amaitu du.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau eman dut, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren zigilua jarrita eta Batzordeburuak ontzat emana.

Ezkarozen, 2026ko martxoaren 25an

**12.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se suscitan.

Y, no habiendo más asuntos a tratar, el Sr. presidente levanta la sesión, siendo las diecinueve horas y cuarentaicinco minutos.”

Y para que así conste, expido la presente certificación sellada con el cuño de la Junta y con el Vº Bº del Presidente.

En Ezcároz, a 25 de marzo de 2026